# 2004KO URTARRILAREN 9KO UDAL BATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 9 DE ENERO DE 2004.

**Akta zenbakia:** 1/2004
**Bilera data:** 2004-01-09
**Bilera mota:** Ez ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 16:30 – 16:45
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga

**Zinegotziak:**
Maria Isabel Vaquero Montero
José Luis Aramendi Goikoetxea
José Maria Aldanondo Ugalde
Maria Ángeles Iriondo Múgica
Mª Teresa Pagazaurtundua Rúiz
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
José Manuel Funes Rivas
Juan Maria Tomasena Alzuri
Asuncion Guerra Alonso

**Bitarteko idazkaria:**
Beatriz Garate Cortabarria

**Acta nº:** 1/2004
**Fecha:** 09-01-2004
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 16:30 – 16:45
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**
**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga

**Concejales:**
Maria Isabel Vaquero Montero
José Luis Aramendi Goikoetxea
José Maria Aldanondo Ugalde
Maria Ángeles Iriondo Múgica
Mª Teresa Pagazaurtundua Rúiz
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo
José Manuel Funes Rivas
Juan Maria Tomasena Alzuri
Asunción Guerra Alonso

**Secretaria interina:**
Beatriz Garate Cortabarria

**Aztergaiak:**

1.- San Markoseko Mankomunitateari eskatzea atzera bota dezala kokapenari buruzko azterketa.

2.- Arnasa herri plataformak sartu dituen testuak onartzea. Testua puntu hauek osatzen dute: 1.- Errauste-planta jartzen ez uztea, behar beste lege neurriak hartuz, Urnieta ez dadin izan Gipuzkoako zabortegia. 2.- Herritar guztiei eta batez ere errauste-plantaren kontrako plataformako kideei gai honen inguruan dagoen informazio guztia ematea, bai udal artxiboetakoa eta bai kide diren San Markoseko Mankomunitatekoa ere.

**Orden del día:**

1.- Solicitud de retirada del estudio de ubicación a la Mancomunidad de San Marcos.

2.- Aprobación del texto que ha venido registrando la Plataforma Ciudadana Arnasa en el Ayuntamiento de Urnieta con los dos siguientes puntos: 1.- No permitir la instalación de la incineradora, ejercitando cuantas acciones legales sean necesarias para evitar que Urnieta se convierta en el basurero de toda Gipuzkoa. 2.- Facilite a cualquier ciudadano, y en especial a los miembros de la plataforma contra la incineradora, toda la información existente sobre este asunto, que se encuentre en los archivos municipales, así como en la Mancomunidad de

San Marcos, de la que son miembros.

3.- Udalbatzarrak San Markoseko Mankomunitateari eskatzea Urnietako Udalak San Markoseko Mankomunitatean duen ordezkari Hermenegildo Gonzalezek 2003ko abenduaren 16an eskatutako informazioa.

3.- Petición del Pleno a la Mancomunidad de San Marcos sobre la información solicitada por el representante del Ayuntamiento de Urnieta en la Mancomunidad de San Marcos, Hermenegildo González, el día 16 de diciembre de 2003.

**1.- San Markoseko Mankomunitateari eskatzea atzera bota dezala kokapenari buruzko azterketa.**

**1.- Solicitud de retirada del estudio de ubicación a la Mancomunidad de San Marcos.**

Alkateak hartu du hitza esateko hirugarren aldia dela hau onartzen dutena eta ez duela uste azalpen handirik beharko duenik gai honek eta zuzenean bozkatzeko proposatu du. Honako emaitza hau izan du:

Toma la palabra el alcalde para señalar que es la tercera vez que aprueban esta propuesta y que no cree que necesite de grandes explicaciones, así que propone someterlo directamente a votación. Ha obtenido el siguiente resultado.

Alde: 13 (EAJ-EA 6, PSOE-EE 5, EB 1, PP 1).
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

A favor: 13 ( 6 PNV-EA, 5 PSOE-EE, 1 IU, 1 PP).
En contra: 0
Abstención: 0

Gaia bozkatu ondoren, udalbatzarrak aho batez hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno de la Corporación adopta de forma unánime el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa eta bakarra.-** San Markoseko Mankomunitateari eskatzea atzera bota dezala kokapenari buruzko azterketa.

**Primero y único.-** Solicitar a la Mancomunidad de San Marcos que retire el estudio de ubicación.

# 2004KO URTARRILAREN 9KO UDAL BATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 9 DE ENERO DE 2004.

**2.- Arnasa herri plataformak sartu dituen testuak onartzea. Testua puntu hauek osatzen dute: 1.- Errauste-planta jartzen ez uztea, behar beste lege neurriak hartuz, Urnieta ez dadin izan Gipuzkoako zabortegia. 2.- Herritar guztiei eta batez ere errauste-plantaren kontrako plataformako kideei gai honen inguruan dagoen informazio guztia ematea, bai udal artxiboetakoa eta bai kide diren San Markoseko Mankomunitatekoa ere.**

**2.- Aprobación del texto que ha venido registrando la Plataforma Ciudadana Arnasa en el Ayuntamiento de Urnieta con los dos siguientes puntos: 1.- No permitir la instalación de la incineradora, ejercitando cuantas acciones legales sean necesarias para evitar que Urnieta se convierta en el basurero de toda Gipuzkoa. 2.- Facilite a cualquier ciudadano, y en especial a los miembros de la plataforma contra la incineradora, toda la información existente sobre este asunto, que se encuentre en los archivos municipales, así como en la Mancomunidad de San Marcos, de la que son miembros.**

M. Vaquero Montero alkateordeak hartu du hitza, eta Arnasa plataformak aurkeztutako testua irakurri du. Ondoren, alkateak galdetu du ea inork horri buruzko iritzirik eman nahi duen.

Ha tomado la palabra la teniente-alcalde, Mª Isabel Vaquero Montero para proceder a la lectura del texto presentado por la Plataforma Arnasa. Seguidamente, el Alcalde ha preguntado si quieren opinar sobre este tema.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du Urnietako Udaleko EBren izenean baiezko biribila esaten diola egindako proposamenari, eta garbı utzi du Urnietako ezein metro koadrotan ez jartzeari buruz ari dela; jarraitu du esanez udalean ordezkatuta dauden alderdiengandik espero duela herritar gehienen eskaerari erantzutea inolako zalantzarik gabe, eta 2003ko abenduaren 22ko udalbatzarrean sortutako frustrazioa berriz bideratzea; izan ere, berretsi egin dute San Markoseko Mankomunitatearen Juntari eskatzea baliogabetu dezala 2003ko urriaren 15eko erabakia, herri honetan errauste-planta jartzeari buruzkoa.

Ha pedido la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri para decir que como IU-EB en el Ayuntamiento de Urnieta se pronuncia con un sí rotundo ante la propuesta planteada, dejando claro que se refiere a no instalarse en ningún metro cuadrado de Urnieta; continua diciendo que espera que los distintos grupos representados en el Consistorio satisfagan la exigencia de la inmensa mayoría del pueblo sin ningún tipo de dudas y reconducir la frustración creada tras el pasado Pleno del día 22 de diciembre de 2003 al haber ratificado la decisión que acaban de aprobar de exigir a la Junta de la Mancomunidad de San Marcos el dejar sin efecto su decisión adoptada el 15 de octubre de 2003 de ubicar una incineradora en este municipio.

Jarraian, PSOE-EEko bozeramaile M. Teresa Pagazaurtundua Ruizek hartu du hitza, eta esan du beraiek aurreko udalbatzarrean adostasuna azaldu zutela Arnasa plataformak egindako proposamenaren inguruan; idatziz eta ahoz adierazi ziotela plataformari sostengatzen dutela proposamen hori eta, gainera, gauza bategatik edo besteagatik aurreko udalbatzarrean sortutako

A continuación ha pedido la palabra la portavoz del PSOE-EE, Mª Teresa Pagazaurtundua Ruiz para decir que ellos en el Pleno anterior ya expusieron que estaban de acuerdo con la propuesta que había hecho la Plataforma Arnasa, que se lo hicieron llegar por escrito y también oralmente, que apoyaban esa propuesta y que además significa dar satisfacción

frustrazioa berdintzea esan nahi duela horrek; izan ere, udalbatzar hartan honetaz jardun behar zuten, eta hainbat huts egiterengatik, ez zuten eztabaidatu; hona etorri zen jendearenganako eta sinatu zuen jendearenganako errespetu falta izan zen hori. Amaitu du esanez baiezkoaren alde bozkatuko dutela.

a la frustración que por unas causas u otras crearon en el anterior Pleno en que esto debía haber sido tratado y por diferentes errores no se trató y fue una falta de respeto para toda la gente que se había acercado y para toda la gente que había firmado; concluye diciendo que ellos van a votar que sí.

Jarraian, PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonso zinegotziak eskatu du hitza, eta esan du bera ados dagoela oro har testuarekin; baina ez datorrela guztiz bat lehenengo puntuarekin, oso orokorra baita; bigarren puntua dela eta, ez dauka zalantzarik; esan du ez dagoela oso ziur lehenengo puntua errauste-plana Urnietan jartzeari buruz soilik ari denik, eta zalantza txiki hori duenez, abstenitu egingo dela; horrek esan nahi du bere abstentzioarekin udalbatzarkide gehienek bozkatutakoa onartuko duela. Bestalde, esan du gaur-gaurkoz errauste-planta Urnietan jartzearen aurka dagoela.

Después pide la palabra la concejal del PP, Mª Asuncion Guerra Alonso para decir que ella está de acuerdo en general con el texto, lo que no le convence es la generalidad del primer punto; en cuanto al segundo punto no tiene ninguna duda; dice que no tiene claro que el primer punto se refiera sólo a la incineradora en Urnieta, ella apuesta porque no se ponga en este momento una incineradora en Urnieta, pero como le queda esa pequeña duda lo que va a hacer es abstenerse, lo que quiere decir que con su abstención se somete a lo que la mayoría del Pleno vote. Comenta que hasta ahora no se ha posicionado y dice que se posiciona claramente en contra de la incineradora, en este momento, en el municipio de Urnieta.

Azkenik, alkateordeak hartu du hitza, eta esan du gaia aztertu ondoren, testuaren alde bozkatuko dutela bai udaleko juntan eta bai Urnietako EAJ taldean ere.

Por último toma la palabra la teniente-alcalde para decir que tras su estudio, tanto en la junta municipal como en el grupo del EAJ-PNV de Urnieta, van a votar a favor del texto.

Honen ondoren, alkateak bozkatzeko proposatu du. Emaitza hau izan du:

Tras esto, el Alcalde propone someterlo a votación con el siguiente resultado:

Alde: 12 (EAJ-EA 6, PSOE-EE 5, EB1)
Kontra: 0
Abstentzioa: 1 (PP)

A favor: 12 ( 6 PNV-EA, 5 PSOE-EE, 1 IU).
En contra: 0
Abstención: 1 ( PP).

Gaia bozkatu ondoren, korporazioaren gehiengo absolutua osatzen duten udalkideen aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría absoluta de la Corporación, adopta el siguiente

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa**.- Errauste-planta jartzen ez uztea, behar beste lege neurriak hartuz, Urnieta

**Primero**.- No permitir la instalación de la incineradora, ejercitando cuantas acciones

ez dadin izan Gipuzkoako zabortegia.

legales sean necesarias para evitar que Urnieta se convierta en el basurero de toda Gipuzkoa.

**Bigarrena**.- Herritar guztiei eta batez ere errauste-plantaren kontrako plataformako kideei gai honen inguruan dagoen informazio guztia ematea, bai udal artxiboetakoa eta bai kide diren San Markoseko Mankomunitatekoa ere.

**Segundo**.- Facilitar a cualquier ciudadano, y en especial a los miembros de la plataforma contra la incineradora, toda la información existente sobre este asunto, que se encuentre en los archivos municipales, así como en la Mancomunidad de San Marcos, de la que son miembros.

**3.- Udalbatzarrak San Markoseko Mankomunitateari eskatzea Urnietako Udalak San Markoseko Mankomunitatean duen ordezkari Hermenegildo Gonzalezek 2003ko abenduaren 16an eskatutako informazioa.**

**3.- Petición del Pleno a la Mancomunidad de San Marcos sobre la información solicitada por el representante del Ayuntamiento de Urnieta en la Mancomunidad de San Marcos, Hermenegildo González, el día 16 de diciembre de 2003.**

Gai honen inguruan, alkateak azaldu du Udalaren izenean eskaeraren bat egiten denean, irteera eman behar zaiola udaletxeko erregistroan. Bestalde, azaldu du San Markosen galdetu duela arazorik ba ote dagoen Hermenegildo Gonzalezek San Markoseko Mankomunitateari urriaren 16an eskatutako informazioa emateko, eta ezetz erantzun diotela.

Sobre este tema el Alcalde ha expuesto que cuando se haga alguna solicitud en nombre del Ayuntamiento se le de salida en el registro del Ayuntamiento, por otra parte ha explicado que él ha preguntado en San Marcos si hay algún problema para facilitar la información que Hermenegildo Gonzalez solicitó a la Mancomunidad de San Marcos el día 16 de octubre y que le han contestado que no hay ningún problema.

PSOE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek erantzun dio esanez eskaera ez duela Urnietako Udal gisa egin, baizik eta Udalak Mankomunitatean duen ordezkari gisa. Alkateordeak erantzun dio norbaitek Udala ordezkatzen duenean eta informazio ofiziala eskatzen duenean udaletxeko erregistroan agertu behar duela, horrela eska baitezake Udalak eskaera hori babestea.

El concejal del PSOE-EE, Hermenegildo González Morán le contesta que la petición no la ha hecho como Ayuntamiento de Urnieta sino como representante del Ayuntamiento en la Mancomunidad. Le contesta la teniente-alcalde diciendo que cuando alguien representa al Ayuntamiento y se hace una petición de información oficial, se le da fe en el registro del Ayuntamiento, porque así se puede exigir que el Ayuntamiento le avale en esa petición.

Jarraian, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du aukerarik ba ote dagoen hamargarren puntu bat sartzeko, Hermenegildo Gonzalez Moranek egindako

Después ha tomado la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri para decir que si hay posibilidad, aparte de los nueve puntos que se especifican en la petición realizada por

eskaeran zehazten diren bederatzi puntu horiez gain; puntu hau, hain zuzen: *errauste-planta ez beste irtenbideren bat bilatzeko egindako azterketen kostu zehaztua.* Gainerako batzarkideek baietz erantzun diote.

Azalpen hauen ondoren, alkateak gaia bozkatzeko proposatu du. Emaitza hau izan du:

Alde: 13 (EAJ-EA 6, PSOE-EE 5, EB 1, PP 1)
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Gaia bozkatu ondoren, Udalbatzak aho batez hartu du ondorengo

**AKORDIOA**

**<u>Lehena eta bakarra</u>**.- San Markoseko Mankomunitateari informazio hau eskatzea:

1. Hiri hondakinak tratatzeko gaikako metodoari buruzko azterketak.
2. Herritarren parte-hartzeari buruzko dokumentua. Eztabaida publikoa. (Zein metodo erabili diren gizarte eragileak bat etor daitezen).
3. Azterketa egiteko hartu diren eremu-fitxak.
4. Azterketa egiteko lehiaketaren esleipen oinarriak.
5. Azterketa egiteko aurrekontua.
6. San Markoseko Mankomunitatearen eta azterketa egin duen enpresaren arteko kontratuaren oinarriak.
7. San Markoseko Mankomunitatearen Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala.
8. Plan Integralaren aurrekontu zehaztua, kontu-sail hauetan:

Hermenegildo González Morán de introducir un décimo punto que sería: "presupuesto detallado del coste de estudios alternativos a la incineración que se hayan realizado", a lo que el resto de corporativos contesta afirmativamente.

Después de estas explicaciones, el Alcalde propone someter el tema a votación, siendo éste el resultado:

A favor: 13 ( 6 PNV-EA, 5 PSOE-EE, 1 IU, 1 PP).
En contra: 0
Abstención: 0

Después de someter el tema a votación, la Corporación por unanimidad ha adoptado el siguiente

**ACUERDO**

**<u>Primero y único.-</u>** Solicitar a la Mancomunidad de San Marcos la siguiente información:

1. Estudios previos de selección de método de tratamiento de residuos urbanos.
2. Documento de participación ciudadana. Debate público. (Métodos utilizados para consensuar a los agentes sociales).
3. Fichas de campo tomadas para su realización.
4. Las bases de adjudicación del concurso del estudio.
5. Presupuesto destinado a la realización del mismo.
6. Bases contractuales de la Mancomunidad de San Marcos con la empresa realizadora del estudio.
7. Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de la Mancomunidad de San Marcos.
8. Presupuesto detallado de dicho Plan Integral a las partidas de:

**2004KO URTARRILAREN 9KO UDAL BATZARRAREN AKTA**
**ACTA DEL PLENO DEL 9 DE ENERO DE 2004.**

- Gaikako bilketa
- Konposajea
- Birziklatzea
- Erraustea
- Isurtzea.

9. Errauste-plantak bertatik bertara ikusteko Alemaniara joan direnen kostuari buruzko aurrekontu zehaztua.

10. Errauste-planta ez beste irtenbideren bat bilatzeko egin diren azterketen kostuaren aurrekontu zehaztua.

- Recogida selectiva.
- Compostaje.
- Reciclaje.
- Incineración.
- Vertido.

9. Presupuesto detallado del coste de todos los que han viajado en los distintos viajes a Alemania para ver “in situ” las incineradoras.
10. Presupuesto detallado del coste de estudios alternativos a la incineración que se hayan realizado.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko bostak laurden gutxiagotan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, alkatearen oniritziaz, hala ziurtatu dut, Urnietan 2004ko urtarrilaren 14an

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco menos cuarto, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del alcalde, en Urnieta a 14 de enero de 2004.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarria
Bitarteko idazkaria,

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,

